



1. Sasi guztien gaisetik, laino guztien azpitik.

- a. Ez dago oztopo salba ezinik.
- b. Bizitza mundu honetan eman behar dugu eta ez bestean.
- c. Eguraldi txarra dagoenean esan ohi da.
- d. Aztiak eta sorginek erabilitako esaldia.

2. Urak dakarrena urak daroa.

- a. Gauzak okertuz joan.
- b. Urak egingo du bide.
- c. Uholdeak izan.
- d. Gauzak etortzen diren moduan joaten dira.

3. Ziztu bizian atera da.

- a. Lerdea zeriola atera da.
- b. Abiadura handiz atera da.
- c. Ez da atera.
- d. Poliki atera da.

4. On dagizula!

- a. Zintzo portatu.
- b. Jaten denean esan ohi da.
- c. Erlijiosoen arteko agurra.
- d. Zuk bost dakizu!

5. Ez da oso betea.

- a. Oso argala da.
- b. Ez da batere azkarra.
- c. Erosketetan lapurtzen denean esaten da.
- d. Hartutako muturrekoa ez da handia izan.



6. Hori plazagizona da.

- a. Oso gizon ezaguna da.
- b. Oso pertsona harroa da.
- c. Beti trikimailuren batez baliatzen da.
- d. Hori jendearen aurrean ez da kikiltzen.

7. Hamaika ikusteko jaioak gara!

- a. Hamaika lagun etorri dira.
- b. Egoera harrigarri baten aurrean erabilitako esaldia.
- c. Jaio aurretik asko dakite umeek.
- d. Denbora luzez ibili gara begirik kendu barik.

8. Ez daukat sosik ere.

- a. Ez daukat txakur txikirik ere.
- b. Ez daukat katu txikirik ere.
- c. Ez daukat gogorik ere.
- d. Ez daukat lagunik ere.

9. Bereak eta asto beltzarenak hartu zituen.

- a. Astindu ederra eman zioten.
- b. Oso berekoia da.
- c. Astoari ere janaria lapurtu zion.
- d. Hori ez da batere argia.

10. Hagina dabilenean, sabela pozik.

- a. Haginak zuhaitzak dira eta ez doaz inora.
- b. Ibiliz gero, pozik gaude.
- c. Hitz egiten dugunean, pozik gaude.
- d. Jaten dugunean, sabela pozik omen dago.